Elorrieta y Kortabarria se funden en un abrazo durante el homenaje que se le tributó tras el Consejo Nacional del pasado 19 de junio.

# Ilusioak, oroitzapenak, eta elkarrekin ibilitako bidea

› JOSE ELORRIETA

## Agur esaten diogu German

**Kortabarriari**, eta agur esatearekin batera oroitzapen asko eta asko datozkit gogora arrapaladan. German, uneoro, ELAren ikuspuntua zehaztasunez eta sakontasunez jakitera eman duen maisu bikaina izan da, horretan ez dut zalantzarik egiten.

Jatorri onekoa izanik, badu zertan eskerrak eman gurasoei; heziketa sendokoa izanik, badu zertan eskerrak eman Arantzazuko Asisko anaiei; abertzale eta euskaltzale aparta iza-

**German formó parte, desde el principio, de un grupo de hombres y mujeres decidido a que el sindicalismo abertzale, además de tener historia, tuviese futuro**

nik, badu zertan eskerrak eman Oñatiri eta 60 hamarkadako haize berriari; orduan sortu baitzen, saminez eta itxaropenez, gerra-ondoko Euskal Herria.

Sindikalismo abertzalearen historiari jarraipen bat bilatzeko lanetan hasiera-hasieratik ibili da German, gizon eta emakumeen talde baten barruan. Ia 40 urtez eskaini dizkigu gogotik bere konpromisoa eta militantzia bizia, orain arte.

**Berebiziko partehartzea izan zuen 1976ko III. Kongresuan**, Euba-Eibarren. Han, Konfederazioaren Estatutuen txostengileetako bat izan zen. Eta orduko Estatutu haiek gaur egun indarrean dauzkagun berberak dira.

Ez da pasadizo hutsala esatea frankismo-ondoko lehenengo liberatua izan zela. Ez zen oharkabean pasa haren lana, ezta lan-abokatu gisa zituen ezaguera zabalak, eta handik hona urte asko igaro arren, oraindik hurbiltzen zaizkio afiliatu zaharrak eskerrak emateko lortutako elbarritasun hargatik edo hobetutako beste pentsio hargatik...

Gero, Konfederazioko Kabinetean jardun zuen, eta 1988az geroztik Batzorde Eragileko kidea izan da.

1992an, ELAk "Aurrerapenez eta askatasunez beteriko etorkizuna" dokumentua argitaratu zuen — Valentin Bengoaren eskutik, hori ezin uka—; eta handik gutxira, Germanek idazteari ekin zion gogotik, eta gaur arte.

Aipaturiko dokumentuan estrategia subiranistaren giltzarriak eta aliantza berrien aukerak ematen baziren eza-gutzera, ondorengo pausoak bide beretik joan dira, eta bidean oztopo ugari topatu arren, zoragarria izan da bidaia.

**Germán ha sido y es un gran dirigente sindical, con valores, con una enorme sensibilidad y personalidad**

## ELAren historian eta zereginetan

German aipatu eta goraiatu beharrekoa da, eta hori ez dugu esaten ELAtik bakarrik, berarekin harremanetan izan diren beste sindikatuetatik, edo mugimendu sozial, politiko edo kulturaletatik ere beste horrenbeste esaten dute, eta aintzat hartzen dizkiote sindikalista moduan erakutsi dituen baloreak, sentiberatasuna eta nortasuna. Umore azkarra eta fina du, aldi berean irribarrea eta gogoeta pizten duena. Berarekin lanean aritzeko zortea izan dugunok, lagun dugunok badakigu zenbat balio duen, eta horregatik preziatzen eta estimatzen dugu hainbeste.

Germani eskerrak ematearekin batera, barkatzeko eskatu nahi diet haren emazte Arrateri, eta Aimar eta Maialen seme-alabei kendu diegun denbora eta lasaitasunagatik, eta baita gure esker ona agertu ere konpromiso bizi eta militante horretan izan duten paperagatik.

## Badakit gerora ere sarri-askotan elkar ikusiko dugula:

auzokideak izateagatik, lagunak izateagatik, zu oraingo honetan jaisten bazara, ni hurrengoan jaitsiko naizelako, gauden lekuan gaudela sindikalista abertzaleak, eta beraz ELAkoak, izaten jarraituko dugulako. Denen izenean, eta neurean ere bai, jakina, besarkada handi bat, elkarrekin bizi izandako ilusioengatik, oroitzapenengatik eta ibilitako bideagatik.



# Orgullo de ELA

TRAS 40 AÑOS, **GERMAN KORTABARRIA** ABANDONA SUS RESPONSABILIDADES EN ELA POR RAZONES DE EDAD

› NEREA ISPIZUA

**Primer contacto con ELA.** Entro en ELA en segundo de Derecho, en el curso 70-71. Conozco a una serie de personas de ELA, unos estudiantes, otros trabajadores, y me sumo al grupo. Fundamentalmente, hacíamos círculos de estudios: leer, debatir, sacar algunas hojas... Era una situación confusa, con diversos grupos que se reivindicaban de ELA. Algunos optan por la política. Nuestro grupo, liderado por Alfonso Etxebarria, se decanta claramente por el sindicalismo.

**Abogado laboralista del sindicato.** Se veía ya que el dictador no podía seguir viviendo muchos años. Todas las organizaciones, en la clandestinidad, se preparaban para la nueva situación. En el sindicato se veía que la cobertura jurídica a los trabajadores sería un elemento importante en el futuro, y Alfonso me encomendó esa tarea cuando todavía estaba en la mili.

Ocurrió que terminar la mili y morirse Franco fue todo uno; no hubo tiempo para entrar en un bufete y hacer un recorrido antes de asumir la responsabilidad, tal como habíamos planeado; me tocó aprender a nadar después de lanzarme al agua.

En unos tiempos bastantes convulsos, en los que el sindicato vertical no había desaparecido, en el que las huelgas, por sistema, eran ilegales, empecé a trabajar. Vivimos, desde el principio, situaciones muy duras. Huelgas con muchos despidos: conflictos como el de Fundiciones del Estanda, de Beasain, con 25 trabajadores despididos, o la huelga de los 100 días, de Michelin.

**III Congreso. Eibar/Euba.** Repasar las fotos del III Congreso, en el que pusimos las bases fundamentales de la ELA actual, es recordar a mucha gente, con los que has compartido experiencias irrepetibles, de los que he aprendido mucho. La mayoría éramos unos chavales, y creo que le echamos muchas ilusión, narices, y ganas de aprender.



Arriba, German Kortabarría, (primero por la derecha) durante el III Congreso de ELA, en el año 77. A la derecha, varias décadas después.

**La llegada a Bilbao.** Primero estuve trabajando como abogado en Donostia. Eso suponía recorrer Gipuzkoa rincón a rincón, tener muchas reuniones; el trabajo en servicios jurídicos era un trabajo muy político.

Vengo a Bizkaia en primavera del año 77. Lo hicimos, de la mano, Juan Olaskoaga, Mari Tere y yo. Aquí ya había gente de peso, como Eusebio Alberdi, Fernando Iraeta, o el propio Elorrieta. Empezamos con un pequeño local en una entreplanta en Santutxu; luego fuimos a Barroeta Aldamar. Durante un tiempo estuve


**Urte haiek mugimendu eta lan handiko urteak izan ziren, ordutegitik kanpoko ordu askokoak. Gauzak ahalik eta hobeto egiten genituen, eta apurka-apurka lekua egiten joan ginen**



atendiendo en varios locales en distintas tardes de la semana: Basauri, Gernika, Durango, Gasteiz... Fueron años de mucho ajeteo y trabajo, años con muchas horas pero sin horarios, donde hicimos las cosas lo mejor que pudimos, y donde fuimos ganando un sitio poco a poco. Trabajar en los servicios jurídicos de un sindicato es una experiencia dura pero extremadamente interesante. Se tiene una percepción muy próxima, muy viva, de lo que es el abuso y la explotación.

Posteriormente, pasé al gabinete de la secretaría general, donde me ocupé de temas colectivos y que afectaban al sindicato.

**En 1988, elegido responsable de comunicación.** Siempre me ha gustado escribir, y desde el Lan-deya de la clandestinidad hasta hoy he colaborado en las publicaciones del sindicato.



German Kortabarria ha sido el guionista de los chistes y viñetas de nuestras publicaciones. Esta vez le ha tocado a él ser protagonista de uno de ellos.

to. ELA siempre ha dado mucha importancia a la comunicación interna. Cuando yo llego a la responsabilidad, todas las semanas se ponía en casa de cada afiliado/a un semanario de 8 páginas, con toda la información sociolaboral. Lo que no teníamos era una proyección exterior, social y mediática, porque nos habíamos centrado casi exclusivamente en el taller, en las empresas. En ese momento se da un nuevo planteamiento en la organización, salir a la sociedad vasca, y, naturalmente, la política de comunicación adquiere mayor relevancia. Es importante que la gente sepa lo que piensa ELA de las cosas. En ese sentido, pasamos a tener una política de comunicación mucho más abierta. Entramos en una fase en la que ELA se empieza a ver más.

**La información sociolaboral tiene importancia,** si la comparamos con otros entornos. Otra cosa son los enfoques. Hay que darse cuenta de que los medios de mayor difusión nos son hostiles. No son medios que compartan con nosotros ni el modelo laboral, ni el social, ni el político.

**Información y formación.** Fue una gran satisfacción ser responsable de Formación y poner el nombre de Manu Robles-Arangiz a nuestro instituto. Como responsable de este área, me tocó estar presente en la gestión del Acuerdo Vasco de Formación Continua, Hobetuz. Nos sirvió, entre otras cosas, para darnos cuenta de que el Estatuto de Gernika estaba muerto; las competencias eran de

quita y pon; no se transfería lo que no convenía.

**La relación con LAB.** Fue y ha sido un proceso muy importante porque rompió la dinámica de aislamiento en la que estábamos inmersos en tiempos del Pacto de Ajuria-Enea, y se vio que eran posibles niveles de colaboración entre abertzales. Fue un proceso que mereció la pena, a pesar de que hubo momentos muy duros, sobre todo en la primera época, con casos muy dolorosos, como los asesinatos de miembros del sindicato, y la enorme presión política y mediática para que rompiéramos con LAB.

Personalmente, es duro dejar mis responsabilidades en el sindicato con la relación con LAB rota.

**Lo mejor.** Haber formado parte de este proyecto, haber contribuido con mi granito de arena a que ELA sea lo que es, es muy satisfactorio. En ese sentido, me gusta resaltar que en una organización a algunos nos toca poner la cara, pero el sindicato lo hacemos entre todos: los militantes, la gente en las empresas, la gente que afilia, la gente que prepara las huelgas, la gente que está en los servicios jurídicos, la gente de Caballito, la gente que gana y la gente que pierde.

**Sindikatuak batzuek emango dute aurpegia, baina gainerako guztiek lagundu behar diete**

## Zorte on, maisu!

**German joan aurretik,** kazetari-tzan esaten dugun giza elkarriketa moduko bat egin nahi izan diot, pertsona handi horren gaineko zirri-marra batzuk eman nahian, hainbat hamarkadatan ELAko gidari eta ideologoetako bat izan baita.

Baina, lehengo lepotik burua, ia 18 urtetan nire "nagusia" izan denak zaildu egin dizkit gauzak, eta plura-lean edo abstraktuan hitz egin dit kolektiboaz; hori horrela, ez dut uste gure irakurleek atarramentu onik aterako duten gure ia ordubeteko solasalditik.

Ez dute, beraz, beste aukerarik izango nitaz fidatu baino kontatzen dudanean German Kortabarria lagun grinatsua dela. Aski ezaguna da ELAri eta Euskal Herriari bizitza osoan izan dien mirespena, baina mirespen hori ez da izan bere bizitzako lilura bakarra: familia, lagunak, euskara, liburuak, artea, solasaldiak eta eztabaidak, Oñati eta Lekeitio, umorea, ironia, ondo jatea eta edatea...

Dena dela, aurreko guztia baino apartekoagoa bere kultura zabala, hizkuntzaz ondo baliatzea, sormena, zorroztasuna, gure argitalpenetako biñetetan gidoiak prestatzeko dohaia, ikasteko grina, eta bere buruarekin duen eskakizun-maila aparta —burukomin bat baino gehiago ekarri diona berari, eta inguruko-oi ere bai—.

**Labur bilduz, agur esateko orduan** nik neuk ere neure omenaldi apala egin nahi diot nire azken 18 urteko lan-bizitzan ondoan izan dudanari, eta aitortu, gauza guztien ginetik, nire begirunea eta mirespena diodala Germani, lankide moduan, eta nire adierazpen maitekorra, pertsona moduan. Zorte on eta beti arte, maisu!

**La ELA actual.** Nuestro sindicato está muy vivo, se hace preguntas, intenta ser fiel a su proyecto, tiene una gran capacidad de enganche con la gente, sale al frente de la realidad de los problemas con voluntad de transformación... La salud de ELA es buena. Me gustaría, eso sí, que no se perdiera la memoria, de dónde venimos y cuáles son las señas de identidad de nuestro sindicato. Haber estado en un lugar destacado es un honor y una satisfacción.



Ante la insistencia de ELA en su denuncia, la Inspección de Trabajo terminó acudiendo a la sede de la empresa, dos días después. “A pesar de que la Inspección de Trabajo tenía conocimiento verbal y escrito de la denuncia no mostró la urgencia y la consideración necesaria ante un hecho de tal gravedad. Fue la reiteración y la insistencia de ELA las que le empujaron finalmente a actuar en este caso”.

**Ikuskaritzak bazekien salaketaren berri, baina gertakariaren larritasunari ez zioten behar bezain azkar erantzun**

**Empresa premiada.** Lakuntza también destaca la actitud del único delegado sindical de la empresa en este caso. “Parece difícil que el delegado sindical, de UGT, no estuviese al corriente de lo que sucedía, por lo que todo parece indicar la existencia de permisividad y connivencia con respecto a esta situación”.

Mitxel Lakuntza denuncia que la empresa Quesos vasco Navarra fue premiada el año 2002 por el Gobierno de Navarra. “El Gobierno que preside Miguel Sanz concedió el 2002 ayudas por valor de 63.826 euros en concepto de ‘Mejora de procesos de la industria’ a esta empresa. Lo que no sabemos es si ahora el Gobierno le pedirá cuentas”.

**La de Olazagutía no ha sido la única detención** realizada estos últimos meses en Navarra por delitos contra los derechos de los trabajadores y trabajadoras. “No estamos ante un caso aislado. En Navarra hay muchos trabajadores y trabajadoras inmigrantes, sin papeles, y muchos empresarios que se aprovechan de esta situación. Estos empresarios son conocedores de que las instituciones no consideran la vulneración de los derechos de los trabajadores como una cuestión prioritaria, y saben, también, que las inspecciones y el seguimiento que se realizan sobre estas situaciones son mínimas.

Aunque algunos políticos e instituciones hagan la vista gorda y guarden silencio, el de Olazti no ha sido, ni probablemente será, el único empresario detenido en Navarra por un delito parecido.

# Esclavitud en Navarra

EN LOS ÚLTIMOS MESES, VARIOS EMPRESARIOS HAN SIDO DETENIDOS EN NAVARRA POR DELITOS CONTRA LOS DERECHOS DE LOS TRABAJADORES INMIGRANTES

› G.Q./N.I.

## El pasado 21 de mayo los ciudadanos y ciudadanas de Navarra

se enteraban por la prensa de que un empresario de Olazagutía había sido detenido días antes como presunto autor de un delito contra los derechos de los trabajadores. Este empresario tenía escondidos en un zulo a seis personas inmigrantes.

En la información se explicaba, además, que la detención se enmarcaba dentro de los planes de lucha contra la explotación laboral que la Dirección Territorial de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de Navarra, en colaboración con la guardia civil, lleva a cabo en la comunidad foral, atribuyendo el mérito de la operación a los agentes de la benemérita que, en inspección ordinaria, se percataron de que algo raro pasaba en la citada empresa.

La realidad, sin embargo, fue bien distinta. La realidad es que el dueño de la empresa Quesos La Vasco Navarra, de Olazagutía, que así se llama la empresa donde tuvieron lugar los hechos, fue detenido a raíz de una denuncia realizada por ELA, donde se indicaba exactamente el lugar y el número de trabajadores que se encontraban en situación de ilegalidad y precariedad.

Mitxel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra, relata que “un trabajador despedido de nacionalidad peruana nos pidió ayuda para poder denunciar la situación en la que se encontraban él y cinco compañeros que trabajaban para Quesos La Vasco Navarra, sin ningún tipo de contrato, realizando jornadas superiores a las establecidas y sufriendo continuos descuentos de los días de remuneración”.

JOSE MARIA ELOSUA, 18/98 AUZIAN ERUZTATUTAKOEN ABOKATUA

# Auzitegi Nazionala, eskubideak etengabe urratuz

› GORKA QUEVEDO

**Jose Maria Elosua izen handiko abokatua da.** Bera izan da, beste hainbat lagunekin batera, 18/98 sumarioan erruztatutako abokatuetakoa bat. Baina, 18/98 sumarioaz gain, Elosuak eskarmentu handia du, eta primeran ezagutzen ditu Espainiako Auzitegi Nazionalako zirrikitu guztiak. Horregatik, maiatzean *Auzitegi Nazionala, eskubide urraketan paradigma* hitzaldi sorta eman du Manu Robles-Arangiz Fundazioaren eskutik.

**-Makina bat aldiz entzun dugu Auzitegi Nazionalaz hitz egitea. Baina, zer da epaitegi hori?**

-1977. urtera arte Espainian jurisdikzio bereziak izan dira terrorismoa epaitzeko eskumena izan dutenak. Urte horretan Auzitegi Nazionala sortu zen, frankismoaren Ordenu Publikoko Epaitegiaren eta Tribunal Militarren jarraipen gisa. Aski da ikustea Auzitegi Nazionala indarrean jarri zen egunean hiru lege dekretu eman zirela. Lehenengoa Ordenu Publikoko Epaitegia desagertzeko; bigarrena Tribunal Militarrek eskumenik gabe uzteko; hirugarrena Auzitegi Nazionala sortu eta bere kompetentziak finkatzeko. Guztiak jarraian eman ziren, jarraipena praktikan, formetan eta itxuretan gauzatuz.

**-Zein helbururekin sortu zen Auzitegi Nazionala?**

-Hasieratik terrorismoaren aurkako borrokan tresna politikoa izatea izan du helburu. Denborarekin beste kompetentzia batzuk hartu ditu: txanpon-delituekin, narkotrafikoarekin edo lan arloekin lotura duten gaiak. Hala ere, agerikoa da terrorismoaren aurkako borroka aurrera eramateko sortu zela. Gainera, borroka horretan abangoardia izango da, eta hori aldarrikatuko du.

**-Unean uneko agente politikoaren menpe egotea leporatu izan zaio.**



-Auzitegi Nazionala urrunegi joaten ari da abangoardia izan nahi horretan. PP Gobernuan egon zen urteetan magistratu asko sartu zituen bertan. Egungo magistratu gehienek joera ideologikoa nabarmena da, eta eman dira kasu adierazgarriak. Arlo penaleko magistratu bati baimendu egin zitzaion Kataluniako Estatutuaren konstituzionaltasunaren aurkako sinadurak jasotzea auzitegiko bulegoetan. Partzialtasuna eta ideologizazioa nabaria da. Gobernua arazoak ditu Auzitegia kontrolatzeko, botereen independentzia tarteko.

**La eficacia en la lucha contra el terrorismo es la excusa que se utiliza para justificar la vulneración de derechos**

**-Zein oinarriekin urratzen dira eskubideak Auzitegi Nazionalen?**

-Abiapuntua 'terrorismoa' deitzen den fenomenologia da. Definitu gabeko kontzeptua da, eta horrek juridikoki segurtasun eza ematen du. Egundako ETako kide zarela esateko ez da derrigorrezkoa inolako indarkeria motarekin harremanetan egotea, nahikoa da auzitegiak interpretatzea bere helburu eta estrategiarekin bat egiten duzula. Joxemi Zumalabe Fundazioak desobediencia zibila aldarrikatzen zuen. Auzitegi Nazionalaren ustez, hori ETaren helburua ere izanik, Joxemi Zumalabe ETaren parte ere bada. Hori faltsua izanda, larriena zera da: baliteke zu hor lanean egotea eta leporatzea ETako kide zarela zuk jakin gabe.

**-Terrorismoa definitu gabeko kontzeptua dela diozu. Beraz, terrorismoari aurre egiteko legedia definitzea ez da erraza izango.**

-Terrorismoari aurre egiteko legedia oso zabala da. 70. hamarkadan ia urtero eman zen legedi berri bat. Gerora ere erreformak etengabeak izan dira. Erreforma egiten zen bakoitzean, orduan eta tratamendu zabalagoa zuen terrorismoak, eta eskubideak gero eta murriztagoak ziren. Hasieran ekintza armatuekin zerikusia zuten jokabideak zigortzen ziren: lehergai-luak jartzea, bahiketa bat egitea... Borroka armatu bera eta borroka armatua praktikan jartzen zituztenak, egileak, izaten ziren zigortuak, eta baita egite horietan konplize bezala parte hartzen zutenak. Baina, beti ere, parte hartze zuzena zutenak.

1975ean kolaborazioa egintza-kriminala bihurtu zen. Hortik aurrera ez da derrigorrezkoa izango ekintza zehatz batetan parte hartzea edo ekintza batetan laguntza ematea terrorismo delitua izateko. Borroka armatua praktikatzen duen erakunde bati laguntza ematea, nahiz eta ekintza kriminal zehatzekin harremanik ez izan, zigortua izatera pasa zen. Denborarekin, ordenu publikoaren aurkako delituak,

kale istiluak eta abar, terrorismo delitu bihurtu dira ere. Baina ez kale borroka bakarrik, kartelak jartzea, preso ohie ongi etorriak antolatzea, hainbat adierazpen egitea...

## La vulneración sistemática de derechos se produce durante todo el proceso

### -Nola egikaritzen da prozesu batetan eskubide urraketa?

-Urraketak prozesuaren hasieratik gauzatzen dira. Normalean Auzitegi Nazionalaren operazioen berri atxiloteta bat ematen denean jakiten da. Ez dago zertan jakin behar goizeko hiru-retan polizia ate joka duzulako Auzitegi Nazionalen espediente bat dagoela. Atxiloteta eman aurretik beste mekanismo asko daude delitu batean inplikatuak dauden pertsonak deklaratzera deituak izateko. Baten batek esango du: bai, baina terrorismoan, komando baten aurrean gaude-nean? Ez, Auzitegi Nazionalak operatibo guztiak egiten ditu ordu horietan. Konstituzioak eta legediak atxilotetak aurreikusten ditu, baina azken neurri bezala. Hemen ohiko mekanismo dira.

### -Zer gertatzen da atxilotetaren ostean?

-Normalean inkomunikazioa dator. Eta, berarekin atxilotetaren luzapena. Figura legalak dira, baina atxiloteta bera salbuespenekoa bada, beste biak zer esanik ez. Kasuz kasu justifikatu behar dira neurri horiek, proportzionaltasuna erabiliz. Horrelakorik, ordea, ez da ematen. Atxilotutako lagunen artean, hirutik bi espetxeratu izaten da epailearen aurretik pasa ondoren. Inolaz ere ihes egingo ez luketen pertsonak, ikerketa arriskuan jartzeko aukerarik ez duten pertsonak, espetxeratuak izaten dira. Behin-behineko espetxeratzea zigor instrumentu gisa erabiltzen da.

### -Operatiboa hasi besterik ez da egin.

-Epailearen aurretik pasa ondoren, erruztatuak nahi duen abokatua aukeratu ahal izango du. Ordura arte ez, inkomunikazioak eskubide hori murrizten duelako. Hor hasiko gara abokatuak prozeduran parte hartzen. Horretarako behar den lehenengo gauza informazioa da: Zer gertatu da? Zer leporatzen diote? Informazioa lortzeko epaitegira joan eta espediente eskuratu behar da. Ba, normalean ezin izango da espedienterik eskuratu,

sekretupean egongo delako. Hori ere salbuespenekoa izan beharko luke, baina ia espediente guztietan gertatuko da. Defentsa itsu-itsuan jardun behar izaten dugu.

Hori guztia soilik guri ezkututzen zaigu. Ministerio fiskalak informazio osoa du, haientzat ez dago sekreturik. Beste printzipio nagusi baten urraketa aurrean gaude, parteen arteko berdintasunen printzipioa.

### -Zer gertatzen da sekretua altxatzen denean?

-Berriz ere egoera paradoxiko baten aurrean aurkitzen gara. Sekretua altxa da, abokatua joan da Madrilera, eskatu ditu espedientearen kopia eta horratz! Kopia ikusi ahal izango ditu, baina ez fotokopiatu, soilik notak hartu papera eta boligrafoa erabiliz. Milaka folio dituzten sumarioak aztertzeo soilik papera eta boligrafoa! Prozedura penalaren bitarteko fasea arte, ikerketa bukatu eta instrukzio tramiteraino, ez zaigu kopiarik emango.

## La Audiencia Nacional es la continuación del Tribunal de Orden Público y el Tribunal Militar del franquismo

### -Sumarioa ikustean, zer?

-Ba, agerian geratzen da ikerketaren gidaria ia ehuneko ehunetan polizia izan dela. Poliziak dira ikerketen akuilu eta gidari. Epaileak ikerketa hori bideratzeko behar dituen baimenak emango dizkio poliziari, eta ezer gutxiago. Atxilotetak poliziak eskatzen ditu, inkomunikazioa ere, luzapena... Euskaldunon Egunkariaren kasuan Guardia Zibila izan zen itxiera eskatu zuena. Poliziak markatzen du epaile-

ren norabidea, eta epaileak bedeinkatu eta onartu egiten du gidaritza hori.

### -Ikerketa bukatzen denean, zer?

-Sumarioa itxi eta gaia ikerketa eraman duen epailearen eskutik epaituko duen epaimahaira pasatuko da. Orduan lortuko ditugu fotokopiak, eta horietaz baliatuta defentsa egin ahal izango dugu. Baina, adibidez, 18/98ko hainbat epaiketara kopiarik gabe heldu gara zortzi urteren ostean. Baina fotokopiak bezain garrantzitsuak dira konbikzio piezak aztertzea, operatiboetan harra-patzen diren arma, dokumentu, ordenagailu... Hori abokatuen esku egotea oso garrantzitsua da, baina Auzitegi Nazionalen ez dira inoiz egoten, epaiketaren egunean salbu.

## La policía es la que guía las operaciones, no los jueces

### -Erruztatzeko proba nagusia deklarazioa izan ohi da. Horrek ika-mika handia sortu du.

-Hala da. Epaiketen proba izarra, nagusia, deklarazioa da. Auzitegi Gorenean joera gero eta nabariagoa da deklarazioetan oinarritutako epailei ateak ixtea. Baina, sekulan ez ditu ate horiek guztiz itxi, eta Auzitegi Nazionalen aski da edozein zirrikitu hortaz baliatuz epailak nahierara emateko.

### -Epaiketaren ostean, epaileak bere erabakia emango du.

-Zigorak beste urraketa modu bat dira, beldurgarriak izaten dira. Ez dute inolako proportzionaltasunik mantentzen. Auzitegi Nazionalak efikaziaren izenean justifikatzen ditu eskubide bortxaketa guztiak. Efikazia behar da, eta efikaziak dena justifikatzen du. Efikaziaren izenean egiten diren urraketak bost axola.

## Avanzadilla del Estado en la lucha antiterrorista

**Jose María Elosua considera** que la conferencia que Gómez Bermudez, presidente de lo penal de la Audiencia Nacional, ofreció en Iruñea resume perfectamente la actuación de la AN. "La Audiencia Nacional no se limita a cumplir la ley, va por delante de la ley. Constituye la vanguardia, la avanzadilla del Estado en la lucha antiterrorista. Se anticipa a las reformas legales: a veces, nos parece que la ley tiene que cambiar, y entonces abrimos esa opción con una sentencia. A veces se revocan nuestras sentencia, porque se nos dice por parte del Tribunal Supremo que con la ley actual eso no cabe. Entonces se procede a la reforma de la ley. Legislar éso que en los regímenes democráticos se hace en los parlamentos, en el Español se cocina en los fogones de la Audiencia Nacional", afirmó Gómez Bermudez. Más claro, agua.



# “Oaxaca sigue en la lucha”

PATRICIA JIMÉNEZ, DE LA APPO, DENUNCIA LA REPRESIÓN QUE, DESDE HACE CASI DOS AÑOS, SE VIVE EN OAXACA, Y SOLICITA AYUDA INTERNACIONAL

## › NEREA ISPIZUA

**27 personas muertas, 43 que continúan en cárceles de todo el país,** bajo distintas acusaciones, decenas de perseguidos por los aparatos policiales, mujeres sometidas a vejaciones y acoso sexual por las fuerzas de seguridad, niños y ancianos apaleados... Este es, a grandes rasgos, el trágico balance provisional de la represión llevada a cabo por el gobernador de Oaxaca, Ulises Ruiz Ortiz, contra un pueblo que le exige algo tan básico como libertad, justicia y respeto a los derechos humanos. Patricia Jiménez, sindicalista mejicana, miembro de la Asamblea Popular de los Pueblos de Oaxaca (APPO), estuvo en Bilbao invitada por la ONG Mugarik Gabe para explicar una lucha que hoy continúa. Aprovechó su visita para reunirse, también, con cuadros de ELA, y recabar la solidaridad del pueblo vasco.

**-¿Cuál es, en estos momentos, la situación en Oaxaca?**

-No se puede hablar ni de calma ni de tranquilidad, aunque no haya enfrentamientos en las calles. Para nosotros, para la Asamblea Popular de los Pueblos de Oaxaca (APPO), la lucha continúa. Seguimos denunciando la represión gubernamental, exigimos la liberación de los presos políticos, la presentación con vida de los desaparecidos, la cancelación de las órdenes de aprehensión, la renuncia y el castigo del gobierno asesino de Ulises Ruiz Ortiz, así como la presentación de la Ley de

**Oaxacako gatazkan Gobernuaren gerra zikina etengabe agertu den gertakaria izan da. Matxinadako buruzagiei izen ona lohitu nahi izan diete**

Amnistía y la propuesta de la comisión de la verdad para investigar la guerra sucia del pasado y el presente.

Seguimos exigiendo, en definitiva, libertad y justicia, y estamos recabando el apoyo y la solidaridad internacional, porque en Oaxaca no existe un estado de derecho.

**-¿Cuál fue el detonante del conflicto que tan trágicas consecuencias está teniendo para la población civil?**

-En la base de lo sucedido está la pobreza y la injusticia. La clase trabajadora está perdiendo derechos y prestaciones: se imponen programas para terminar con las jubilaciones, cotizaciones a la S.S., etc. En Oaxaca las condiciones son difíciles: un salario medio no llega a los 180 euros al mes. Con ese dinero es imposible vivir. Dentro de los sindicatos tampoco todo es trigo limpio. Y a todo esto se le suma un sistema político corrupto, con políticos que se enriquecen, ellos y sus familias.

Existe un descontento secular. A lo largo de los años se han dado muchos movimientos de resistencia. Pasan las décadas, pero los problemas de fondo no se resuelven: pobreza, miseria, explotación.

En los 80 surge un movimiento en el colectivo de maestros para democratizar su sindicato (el Sindicato Nacional de Maestros siempre había sido parte del PRI). Los maestros logran nombrar a sus dirigentes democráticamente y forman la Coordinadora Nacional de los Trabajadores de Educación.

En sus huelgas, los maestros se instalaban siempre en el Zócalo, la plaza principal de la ciudad, y, normalmente, había otras organizaciones sociales solidarizándose con ellos. Pero, el 14 de junio de 2005, el gobernador, Ulises Ruiz, anunció que no iba a permitir más plantes ni marchas.

**-Una protesta sindical es, por tanto, el origen de la insurgencia popular.**

-Digamos que es el detonante. El caso es que los maestros ocuparon el zócalo, llegó la policía y tuvo lugar una represión brutal: golpearon a hombres, mujeres y niños; helicópteros rociaron a los manifestantes con gases lacrimógenos... Hubo casos, incluso, de maestras violadas por la policía.

**-¿Cómo reaccionó el pueblo de Oaxaca?**

-Fue tal la indignación por lo sucedido que la gente decidió apoyar a los maestros. Y no sólo la gente: numerosas organizaciones sindicales y socia-

les nos juntamos y, entre el 18 y el 30 de junio de 2005, se conformó la Asamblea Popular del Pueblo de Oaxaca. Acordamos, como primera medida, pedir la destitución de Ulises Ruiz Ortiz, el responsable de esta primera represión. Día a día, este movimiento civil fue creciendo.

En julio de 2005 hubieron elecciones, y la APPO llamó a un voto de castigo al PRI y al PAN. Ganó el PRD, con un importante descenso de los otros dos partidos.

**-Pero el gobierno federal sigue sin dar respuesta a las demandas del pueblo de Oaxaca.**

-Así es, por eso se convocó una megamanifestación a la que acudieron cerca de 850.000 personas. Sin embargo, nos encontramos con una manipulación terrible de los medios de comunicación que intentaron silenciar, esconder, el alzamiento popular que vive Oaxaca. Sólo el Diario Noticias y la Radio de la Universidad informan de lo que pasa realmente.

## Oaxacako herrien matxinadaren benetako arrazoiak pobrezia, mendetako injustizia, eta ustelkeria orokorra izan dira

**-Es un movimiento popular en el que las mujeres han jugado y están jugando un papel crucial.**

-El 1 de agosto se produjo una multitudinaria marcha de mujeres de repudio a Ulises Ruiz Ortiz. Nos juntamos unas 14.000. Llegamos al Zócalo y, luego, nos dirigimos al Canal 9, el canal del estado, y pedimos un espacio para hablar. La directora se negó a darnos voz, así que tomamos el canal y lo bautizamos como Radio Cacerola, porque la marcha fue convocada con cacerolas. Nos quedamos allí y echamos a andar la programación de la radio televisión pública.

La respuesta de los paramilitares fue atender contra la Radio de la Universidad y, más tarde, subir al cerro, secuestrar el transmisor y dejarnos sin señal, sin voz.

En ese momento se produjo otro hecho emocionante. Repicaron las campanas de las iglesias y la gente salió a defender a los maestros y a las mujeres que habíamos tomado la televisión. A las 12 del mediodía estaban ocupadas todas las radios comerciales

de Oaxaca por el pueblo. Se convocaban las movilizaciones desde la radio pero, nuevamente, la oposición nos cortó la señal.

El 22 de agosto asesinaron a un compañero, levantamos barricadas y la policía tiroteó a los presentes... En esa situación de revuelta e ingobernabilidad el gobernador pidió el ingreso de la policía federal preventiva.

**-El 29 de octubre, con la entrada de la policía federal preventiva en Oaxaca, la represión se recrudece.**

-El 28 de octubre la ciudad amaneció desolada, sólo se oía el ruido de los helicópteros atemorizando a la población. La noche anterior, la APPO hizo un llamado a la población a no enfrentarse a la policía, a no responder a ninguna provocación. Nuestra intención es la resistencia pacífica.

Muy temprano la gente empezó a salir de sus casas. Entraron tanquetas con agua y ácido. Nos fuimos replegando, y se dió un enfrentamiento cerca de Canal 9, donde murió otro compañero. El pueblo empezó a defenderse de la policía con piedras y palos. Desaparecieron más compañeros.

Las marchas y los enfrentamientos se sucedieron. El 20 de noviembre se montó un operativo policial y empezaron las detenciones masivas. Casi 300 compañeros y compañeras fueron detenidos y tratados como prisioneros de guerra. Los testimonios son terribles: amenazas de muertes, mujeres vejadas... una violación terrible de los derechos humanos.

Del 25 de noviembre a diciembre estuvimos refugiados en la iglesia. Desde el gobierno de Ulises se llamó a quemar las casas de miembros de la APPO, y continuaron las detenciones. Al mismo tiempo, se sucedieron las marchas y las movilizaciones por la libertad de los presos.

## Oaxacako Herrien Biltzarrak (APPO) nazioarteko elkartasuna eskatu du

**-La guerra sucia por parte del gobierno ha sido otra de las constantes en el conflicto de Oaxaca. Se trata de desprestigiar a los líderes de la insurrección.**

-Dirigentes de la APPO han sido trasladados a penales de máxima seguridad

## Errepresio odoltsua

**27 hildako, beste 43 lagun gehiago** -hainbat akusaziopean herrialde osoko gartzeletan sarturik, polizia-aparatuek jazarritako hamarka pertsona, segurtasun-indarren irainak eta sexu-erasoak jasandako hainbat emakume, umeak eta zaharrak jipoituak...

Horrelakoa izan da, labur bilduz, Oaxacako gobernadore Ulises Ruz Ortizek burutu duen errepresioa. Askatasuna, justizia eta giza eskubideak besterik eskatzen ez duen herriaren aurka gauzaturiko errepresioa.



de Mexico, y se les acusa de narcotraficantes, secuestradores, están largo tiempo incomunicados... Se trata a nuestros líderes de delincuentes, cuando son luchadores por los derechos humanos.

Yo misma estoy sufriendo una campaña de difamación. Están preparando el clima para que me investiguen y detengan. Es una táctica habitual de nuestros gobernantes.

**-Este agosto hay elecciones. El PRD y el PRI son más de lo mismo. ¿Cómo es posible que con la oposición social que hay nada cambie en Oaxaca?**

-No confiamos en el proceso electoral. Tenemos una leve esperanza en la alianza de los partidos progresistas, y estamos pidiendo a la gente que acuda a votar.

La APPO seguirá movilizándose aunque acabemos en la cárcel. Nuestra apuesta es la movilización permanente, seguir unidos, y dar información a otras provincias y al mundo entero; que se conozca nuestra lucha.



## EGINETAEKIN

### › GORKA QUEVEDO

**E**z ditugu gure buruak benetako 'militanteak' bezala ikusten. Inportanteena, gure idurikoz, da gauzak gertatzea, gauzak antolatzea eta gauzak sortzea, edozein maila eta gaietan. Hori da seguru aski Fundazioak iparraldean ekarri duen gauza nagusia. Gauzak mugiarazi nahi duen jendea biltzea lortu du, eta jende berria etorraraztea. Helburua gure ustez da jendeak aktore bihurtzea, kontsumitzaile hutsa baino, jendek gauzak antolatzea eta proiektu-

tuetan parte hartzea. Gurekin batera bada hobe, baina haien aldetik ere antolatzen badira, ongi. Inportanteena da gauzak gertatzea".

Horrela mintzo direnak Xan Bidegain eta Jurgi Ekiza dira, Manu Robles-Arangiz Fundazioaren taldekoak Ipar Euskal Herrian. Baina, horretaz gain, Xan eta Jurgi Willis Drummond taldeko baxu jotzailea eta abeslaria dira, hurrenez hurren. Rafa eta Felixekin batera, Willis Drummond Euskal Herriko talderik arrakastatsuenetakoa bihurtu da azken urteetan.

Gazte eta energiak beteta egonda, musikak munduaz duten ikuspegia azalera ateratzeko aukera ematen die. "Bistan da, gure tesuetan ikus dezakegu oposaketan edo bederen "décalage"-ean garaia inguratzeko zaigun kontsumo-sedukzio-gezur mundu honekin. Letren aldetik, ez nuke esanen testu militanteak ditugunik, baina agerikoa da egungo errealitatea aldatzeko gogoia dugula".

**Xan eta Jurgi 1980. urtean jaio ziren.** 90. hamarkadaren hastapeneko egoerak eta eboluzioak ondorioak izan dituzte eurengan. "Esan Ozenki bezalako diskoetxe baten sorrerak panorama musikala moldatu zuen. Lehen urratsak mundu musikal eta militante horretan gertatu ziren. Euskal musikan engaiamendu asko agertzen da oraindik, baina uste dugu beste engaiamendu mota bat dela... Ez dira soilik gauzak eskatzen eta aldarrikatzen, baizik eta egiten: eguneroko bizitzan, euskaraz abestuz, auto-ekoizpenean jarraituz... Finean hemengo bizi sozialean parte hartuz: kontzertu, jai edo gertaera batzuen antolatzearen bidez, adibidez. Musika ez da aldarrikatzeko tresna soilik, aldarrikapena da musika bera".

Urtarrilean lehen diskoa kaleratu zuten, *Antology*. Uda bigarren diskoa prestatzeko baliatuko dute. "Udan kontzertu gutti dauzkagu. Iparraldean kontzertu gutti antolatzen da udan, herriko bestak edo festibalak baizik, eta holakotan ez dugu parte hartzen, Euskal Herria Zuzenean festibala salbu, ekainaren 29tik uztailearen lehenera".